

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua ondo funtzionatzeko, hainbat jarduera funtsezko egin behar dira, hauek baitira enpresaren negozio-eredua martxan jartzen dutenak. Jarduera hauek zuzenean lotuta daude gure balio-proposamenarekin, hau da, edariak hozteko gai den aluminiozko pajita berritzailea eskaintzearekin.

Jarduera nagusietako bat ekoizpena da. Gure kasuan, ekoizpen-prozesuak hainbat pausu ditu: aluminiozko pajiten fabrikazioa, barrualdean harrizko artilea txertatzea, eta azken muntaketa. Prozesu hau ondo kontrolatzea oso garrantzitsua da, produktuak behar bezala funtziona dezan. Ekoizpenaren zati batzuk kanpoko enpresei enkargatu ahal zaizkie, baina produktuaren diseinuarekin eta funtzionamenduarekin lotutako know how-a ezin da kanpora utzi.

Beste jarduera funtsezko bat arazoak konpontzea da. Produktu berria denez, hasieran akats edo hobekuntza beharrak ager daitezke. Horregatik, bezeroen iritziak jasotzea eta arazo teknikoak azkar konpontzea jarduera garrantzitsua da. Honek produktuaren kalitatea hobetzea eta bezeroen gogobetetasuna handitzea ahalbidetzen du.

Horrez gain, plataforma edo sareko jarduerak ere ezinbestekoak dira. Webgunea eta online denda kudeatzea jarduera nagusietako bat da, bezeroek produktua ezagutu eta erosi ahal izateko. Jarduera hauek barne hartzen dute webgunearen mantentzea, edukien eguneraketa eta sare sozialetako presentzia.

Beste jarduera batzuk kanpoko enpresen esku utzi daitezke, adibidez, bidalketa edo garraioa. Hala ere, bezeroarekiko harremana, markaren irudia eta produktuaren garapena bezalako alderdiak barnean kudeatu behar dira, proiektuaren esentzia gal ez dadin.

Ondorioz, funtsezko jarduerak ondo identifikatuta eta lehenetsita egotea oso garrantzitsua da. Jarduera horien bidez sortzen da gure balio-proposamena, eta horiek gabe proiektua ez litzateke bideragarria izango.